



Ospitaleondoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Olabe
Ahozkoa: Ospitalondo

“... la casa rústica titulada de Olabe... situada en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, que comprende veinte y dos estados, equivalentes a ochenta metros de cabida, y la que se compone de sus correspondientes pisos, cuadras, divisiones y habitaciones...”

DJE 3/17 or. (1871)



43° 10' 9"

2° 34' 18"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen aipua 1825ekoa da. Polizia-erroldan agertzen zaigu, Okango auzoaren barruan, *Pegante al Hospital*, hau da, *Ospitale* etxearen (**Ikus Ospitalea**) ondoan, dagoen etxe bati erreferentzia egiteko. 1905. urtean *Junto Hospital* (BUA, 40) erreferentzia aurkitzen dugu, eta 1967ko Udal-erroldan, aldiz, *Hospital ondo* (BUA, CE). Berriztarren artean, *Ospitalondo* da formarik erabiliena.

Oso baserri-etxe soila eta estua da, seguruenik XIX. mendekoa. Hiru pisutan banatuta dago, eta gaur egun bizitza bikoa da, lehen bakarrekoa bazen ere. Fatxada ere simplea du, luzituta eta pintatuta, harlanduzko kantalekin. Beheko solairuan, harlanduz inguratutako atea dauka alde batean, eta leiho bi. Goikoan, berriz, balkoia ikusten dugu erdian, eta leihoak, berriz, alboetan; denak enfoskatuta. Gorago, gero altxatutako ganbaran, egurrezko balkoi luzea dauka.

toponimia

Izen gardena antzinako Ospitalearen ondoko ingurua izendatzen duena (**Ikus Ospitale**).